

BERGARAKO UDALA
BERDINTASUN TEKNIKARIA
LEHENENGO ARIKETA: IZAERA TEORIKOA DUTEN AZTERKETAK

Oposizioaldiko lehenengo ariketa: Izaera teorikoa duten bi atalek osatzen dute eta datorren irailaren 23an egingo da, iragarri zen moduan.

Horien inguruan, hainbat azalpen egin eta jakinarazten dira:

1.- Oinarrien **I. eranskinean** jasotako gai-zerrendaren edukiari buruz egingo den probari dagokionean, aukerako erantzunak dituzten galderak izango dira (test erakoak):

- 1.- 14 galdera izango dira guztira; horietatik 2k erreserba-izaera izango badute ere, 14 galderei erantzun behar zaie.
- 2.- Gaizki erantzundakoek ez dute penalizaziorik izango.
- 3.- 15 minutu izango dira galdera hauei erantzuteko

2.- Oinarrien **II. eranskinean** jasotako gai-zerrenda espezifikoaren edukiari buruz egingo den probari dagokionean, gai-zerrendako gaien inguruko galderei erantzun beharko zaie (modu laburrean idatziz garatzekoak izango dira).

Zehaztasun gehiago proba honen inguruan:

- 1.- 10 galdera izango ditu guztira; horietatik 2k erreserba-izaera izango badute ere, 10 galderei erantzun behar zaie. Ariketa osoa euskaraz edo erdaraz garatu ahal izango da.
- 2.- Erantzuna galderarekin zuzen lotuta egon beharko da; hau da, aipatzen diren lege, dokumentu edo abarri atxikita egon beharko da.
- 3.- Galdera bakoitzak 2,5 puntu balio ditu.
- 4.- Gehieneko iraupena: 120 minutu.
- 5.- Ariketa honetan erantzuterakoan, letra argia erabili behar da, irakurtzeko modukoa; izan ere, zalantzazkoa edo irakurri ezinekoa bada, erantzuna baliogabetzea ere ekarri dezake.

Kontuan izanda bi probak baztertzailak direla, oinarrien **I. eranskineko** gai-zerrendari buruzko proba gaindituta egon behar da bigarrena ebaluatzeko.

Bergaran, 2021eko irailaren 10ean

Epaimahaiko idazkariak

